

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4373

AGINDUA, 2012ko irailaren 24koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena. Horren bidez, «Euskadiko udaltzaingoen uniformeen eta kanpoko ikur bereizgarrien eskuliburua» argitaratzen da.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak udaltzaingoen koordinazioa arautzen du. Honi deritzo koordinazioa: «elkarri informazioa eman, baliabide material eta giza baliabideen dotazioa homogeen izan eta elkarrekin aritzeko aukera ematen duten bitarteko eta baliabideak finkatzeko jardun-sistemen multzoaz ari gara, alegia, udalerriei nahiz Euskal Autonomia Erkidegoari agindutako jardun-ahalmenek bat egiteko moduan»; koordinazio horren barruan, besteak beste, funtzio hau dago: «uniformeen, ikurren, bereizgarrien, ekipoen, ibilgailuen eta uniformatzeko moduko gainerako udaltzain-osagarrien ezaugarri komunak zein izango diren zehaztea, operazioetako efektibitatea bermatzeko eta udaltzainak jendartean erraz identifikatzeko modukoak izan daitezen; halere, udalerrri bakoitzak aukera izango du bere osagarri bereziak ere jartzeko», Lege horren 37.1.i) artikuluekin bat etorritik.

Herrizaingo Sailak eta Eudelek (Euskal Udalen Elkarte), 2010eko maiatzaren 14an, udaltzaingoen arloko lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten, 2007ko aurreko beste baten ordean. Hitzarmen horrek berekin dakar udaltzaingoen kidegoen bateratzea plantillen, bitarteko teknikoaren, uniformearen eta egiaztapen sistemen arloan, eta horretarako sortu ziren udalerrietako eta Herrizaingo Saileko adituek eta ordezkariak eta langileen ordezkariak osatutako lan talde edo mahaiak.

Lan talde horietan eginiko lanaren ondoriozkoak dira agindu honen bidez onetsi den eskuliburuan agertzen diren gomendioak.

Une egokia da Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen kidegoen nortasun espezifikoak eta bereizgarria bateratu zehazteko. Horretarako irudi korporatibo komunak erabiliko dira, udaltzaingoen kanpoko bereizgarriak eta uniformeak banakatzeko eta beste segurtasun kidegoetatik bereizteko eta, halaber, erakunde publiko edo enpresa pribatuak osatutako taldeetatik edo langileengandik.

Horren guztiaren ondorioz, herritarrek errazago identifikatuko dute udaltzaingoen kidegoa, eta haren irudia modernizatuko da. Gainera, lagungarria izango da itxura komunak sustatzeko herritarrek behar bezala identifika dezaten.

Beste autonomia erkidego batzuetan, beren lurraldeko udaltzaingoen erkidego guztientzako uniforme komunak gainera arauak nahitaez ezartzea erabaki da aginduzko arau batean. Gure kasuan, ostera, eta parte hartu duten hainbat erakunderen lan taldeek adostuta lortutako lanaren emaitza denez gero, posiblea da irizpide eta gomendio horien gainera publikitatearen egitea, halako moduz non nahi den bateratzea lortuko baita nahi duten udalerriek beren beharrek bat datorren modua onartuta.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Lege horrek, segurtasun publikoaren arloan Administrazioko organo eskuduna izateagatik, Herrizaingo Sailari eratziki dio udaltzaingoen koordinatzeko neurriak sustatzea, eta horren barnean, Herrizaingo Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuko 25. artikuluek funtzio hau eratziki die Udaltzaingoen eta Segurtasun Pribatuaren Koordinatzeko Zuzendaritzari: Udaltzaingoen

«Homogeneotasuna bultzatzea hauei dagokienez: uniformetasuna, egiaztapena, bitarteko teknikoak...».

Aipaturiko lan taldeen ondorioei eta aurreko lerroaldean esandako funtzioei erreparatuta, eginkizun hori bultzatzea hartu du bere gain Herrizaingo Sailak, eskuliburu hau emanaz eta argitaratuz, zertarako-eta Euskadiko udalei zenbait irizpen komun eta orientazioa emateko, udaltzaingoen kidegoak identifikatzeko kanpoko ikurren oinarrizko homogeneotasunerako lagungarria izan dadin.

Horrengatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Euskadiko udaltzaingoen uniformeei eta kanpoko ikur bereizgarriei buruzko eskuliburua» Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren Atari Instituzionalean (<http://www.euskadi.net>) argitaratzeko agindua ematea; Ebazpen honen eranskinetan jasota dago eskuliburua.

Bigarrena.– Eskuliburu honetako jarduketa espezifikoen irizpideetan edozein aldaketa egiteko, eskuliburua eguneratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 24a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

EUSKADIKO UDALTZAINGOEN UNIFORMEEI ETA IDENTIFIKAZIORAKO KANPOKO IKURREI BURUZKO ESKULIBURUA

1.– XEDEA.

Euskadiko udaltzaingoaren kidegoen uniformeak eta identifikaziorako kanpoko beste elementuak bateratzeko oinarritzko jarraibideak biltzen ditu Eskuliburu honek; izan ere, erreferentzia eta orientaziorako balio izango dute udal agintariei erabakiak hartzerakoan.

Honako hauek dira Euskadiko udaltzaingoak identifikatzeko kanpoko ikurrak:

a) Jantziak: uniformekoak, identifikazio intsigniak eta polizia jarduera betetzeko beharrezko ezaugarriak.

b) Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren ibilgailuak.

2.– UNIFORMEAK.

2.1.– *Kontzeptua.*

Jantzien, ezaugarrien eta beste objektu batzuen diseinua, kolorea eta nolakotasuna arautzen dituzten arauen multzoa da, beren jarduerak eta atazak betetzeko, eguraldiaren arabera betiere.

2.2.– *Uniformearen erabilera.*

1) Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzain-kidego guztiak lanean dihardutenean, arauzko uniformea jantzi behar dute, udaltzaingoaren burutzak berariazko baimena eman ezean. Baimenak eskakizun guztiak bete behar ditu, eta kasu horretan udaltzainek kreditazio ofizialez identifikatu beharko dute euren burua.

2) Lan-ordutegitik kanpo debekatuta dago uniformea eta osagarriak janztea, garrantzi bereziko egoeretan eta gizarte-ekitaldietan izan ezik, eta baldin eta udal agintari eskudunek horretarako berariazko baimena eman badute

2.3.– *Bigarren jardueran dagoen pertsonalaren uniformea.*

Bigarren jarduerako administrazio egoeran eta segurtasun arloari atxikita dagoen pertsonalak Eskuliburu honetan arauturiko udaltzaingoaren uniformea erabiliko du. Hala ere, hori dispentsatu ahal izango du Alkatetzak, pertsonal horrek eratzikita ez dituen eginkizun ez operatiboen arabera.

Pertsonala bigarren administrazio egoeran badago, jarduera hori beste udal zerbitzu batzuen egiten badu eta zerbitzu horiek segurtasun arlokoak badira, ez litzateke erabili behar Eskuliburu honetan jasotako udaltzaingoaren uniformea.

Salbuespenezko arrazoiak direla-eta Alkatetzak egoki irizten badio eta herritarren segurtasunari datzekion eginkizunak bete behar badituzte, jardunean dagoen pertsonalarentzat ezarritako uniformea emango zaie.

2.4.– Uniformearen erabilera eskusiboa.

Eskuliburu honetan ezarritako uniformeak Euskadiko udaltzaingoen kidegoetako pertsonalaren erabilera eskusibokoa izango da, eta tokiko korporazioek, horien menpeko erakundeek eta edozein erakunde publikok eta pribatuk eta taldeek edo pertsonak ez dituzte baimendu behar nahasmendua eragin lezaketen uniformeak.

2.5.– Uniformearen gaineko osagarriak.

Uniformearen gainean soilik agiri honetan edo kidego bakoitzari dagozkion arautegietan ezarritako ikurrak, entseinak eta objektuak eramango dira.

Uniformean, lanbide-zenbakia edo erreferentziakoa eramango da, edozein herritarrek identifikatzeko modua izan dezan informazio hori eskatu behar izan gabe.

Halaber, emakidaren aginduan edo araudian ezarritako egunetan eta ekintzetan ere eraman ahal izango dira beren eginkizunak betetzean lorturiko intsigniak edo sariak, segurtasun indar eta kidegoko kideak diren aldetik, baita udalek edo herri administrazioetako beste organo, erakunde edo entitate batzuek ofizialki emandakoak ere.

3.– UNIFORME MOTAK.

3.1.– Uniforme motak.

Oinarrizko bi modalitateetan ezarri da udaltzaingoen uniformeak: negukoa eta udakoa.

Udalek, eguraldiaren arabera, bi modalitateak erabiltzeko datak erabakiko dituzte.

3.2.– Neguko uniforme mota.

Oinarrizko jantzi hauek osatzen dute Euskadiko udaltzaingoetan nahitaezkoztat jo beharreko gutxieneko zuzkidura neguko motan, bai gizona zuzkoztat, bai emakume zuzkoztat. Hona hemen jantzi horiek.

- a) Txanoa edo txapela.
- b) Mahuka luzeko poloa.
- c) Neguko erabilera anitzeko galtzak.
- d) Jaka.
- e) Zira.
- f) Gerrikoa.
- g) Galtzerdiak.
- h) Zapatak edo botak.
- i) Eskularruak.
- j) Txaleko islatzailea.

3.3.– Udako modalitatea.

Udako modalitateak barruko hainbat jantzi izango ditu, urtaro horretan erabil daitezkeenak, baina honako hauek ere bai.

- a) Mahuka laburreko poloa.
- b) Udako galtzak.

3.4.– Uniforme bereziak.

Udalek oinarrizko uniformeez gain, honako uniforme berezi hauek izango dituzte:

a) Hondartzarako uniformea: udan erabil daiteke, zehazki, hondartza dagoen udalerrietan. Udako uniforme-jantziak dira, eta berezitasun hauek dituzte: kirol-zapatak eta -galtzerdiak, txanoa eta praka motzak.

b) Motorista-unitateen uniformea: udako eta neguko uniforme-jantziak erabiliko dituzte; bai eta honako berezitasun hauek ere: kasko modularra, hirietan erabiltzeko motorista-motako prakak eta bota luzeak, esku-larruak eta babes homologatuko elementudun zamarra (ukondoko, lepoko eta sorbaldako zatiak ken daitezke).

c) Zilindrada txikiko motozikletetarako edo motozikleta txikietarako kaskoa: motorista-unitateetan berriaz sartuta ez dauden auzo-udaltzainek edo antzeko agenteek ere kasko hori eta esku-larriak jantzi ditzakete, hiri-zerbitzuan motozikleta txikiak edo zilindrada txikikoak erabiltzen dituztenean.

d) Emakume haurdunentzako uniformea: emakumezko udaltzainek beharrezko deritzotenean, arauzko uniformea ez erabiltzeko eska dezakete, eta horren ordez, arropa erosoagoa jantzi ahalko dute, euren egoera fisikoa aintzat hartuta. Udalak onartu eta baimendu beharko du eskaera.

3.5.– Oinarrizko uniformearen diseinua.

II. eranskinean daude jasota udaltzaingoan modalitateei dagozkien jantzien deskripzioa, kolorea eta diseinua, baita jantzi horien ezaugarri teknikoak ere hala denean.

«Polizia» inskripzioa agertuko da bularreko eskuineko aldean, eta «Udaltzaingoa» atzeko erdialdean, II. eranskinean agertzen diren jantzietan. «Polizia» legendaren ordez, beste bat jar daiteke udalak hala irizten badio.

3.6.– Galako uniformea.

Oinarrizko uniformea erabiliko da: txano zapala, ehunezko jaka, galtza zuzenak, gorbata eta zapatak, eta gainera osagarri hauek: mahuka luzeko alkandora zuria eta eskularru zuriak.

3.7.– Gala handiko uniformea.

Udalaren irizpenpean izango dira Gala Handiko uniformearen aukeraketa, zuzkidura eta erabilera, udalerrien historiarekin, erabilerekin, ohiturekin eta tradizioekin bat etorritik. Udalek tradizioz erabili izan dituztenak izango dira diseinua eta kolorea.

3.8.– Jantzi osagarriak.

Udalek aurrekoen zenbait jantzi osagarriak erabiltzea erabaki ahal izango dute, baina horiek ez dute ordezkaturiko edo nabarmen aldatuko ezarritako jantzien multzoa.

3.9.– Uniforme jantziak erabiltzea.

Udalari bakoitzeko udaltzaingoan kidegoen antolaketa arautegiek eta funtzionamenduek zehaztu egingo dituzte uniforme mota bakoitza erabiltzeko eta batzuetatik besteetara aldatzeko baldintzak. Halaber, uniforme horiek jantziko dituen Kidego bakoitzeko kideak zehaztuko dituzte.

Zenbait elementu edo jantzi badaude eta aukerakoa badira edo bata zein bestea erabil badaiteke, udal bakoitzak erabakiko du zein jantzi erabili eguraldiaren arabera edo zenbait zerbitzu hobeto emateko. Nolanahi ere, irizpide hau errespetatu beharko da: patruila edo unitate bereko pertsonala modu berean jantzita joatea.

Euria edo hotza dagoenean, jaka erabiliko da uniformearen gainean, baina jantzi hori zuzenean erabili ahal izango da alkandoraren edo poloaren gainetik.

Eguraldia dela-eta hala komeni denean, udalek neguko txanoak erabiltzea erraztu eta baimenduko dute, baita leporako tapaukak (buffak) ere; horren erabilera arautu dezakete.

3.10.– *Segurtasun neurriak sustatzea.*

Pertsonalak nahitaez jantzi behar du jaka islatzailea kontrol dispositiboetan eta galtzadan egiten diren jarduketan luzeetan, eta laneko segurtasunaren gaineko irizpideak ere zorrozki bete behar dira.

4.- IKURRAK, ENTSEINAK ETA BEREIZGARRIAK.

4.1.– *Oinarrizko bereizgarriak.*

Udaltzaingoaren oinarrizko bereizgarriak dira intsigniak eta entseinak, kide horiek kanpoan identifikatzeko, halako moldez non, Euskadiko udaltzaingoen kidego guztien artean egon behar duen bateratzearen barruan, udalerrri bakoitzeko pertsonala bereizteko modua egongo baita.

4.2.– *Intsigniak.*

Uniformean, udaltzaingoen identifikazio-intsigniak eramango dira: «Udaltzaingoa» inskripzioa daraman eguzki-lorea eta besoko armarririak. Azken horiek udalerrrikoak izango dira eskuineko besoaren goiko aldean eta ikurrina ezkerrekoan.

Halaber, buruko jantzietan nahiz entseinetan, eguzki-lorea agertuko da «Udaltzaingoa» legendarekin batera.

Sinbolo, ezaugarri edo ikurren oro jantzi egokietan jarri behar da pertsonalari ematen zaionean.

Diseinua eta ezaugarriak III. eranskinean jaso dira.

4.3.– *Entseinak.*

Udaltzain-kidegoetako kideen entseinak urdin ilunezko mahukatxoak edo sorbaldakoak izango dira; barrualdean eguzkilorea eta Udaleko «Udaltzaingoa» hitza eramango dituzte; eta kanpoaldean galoiak edo barrak, honela bereizita.

a) Eskala teknikoa.

- 1) Intendente-kategoriaren sorbaldakoak urre koloreko hiru barra paralelo izango ditu, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.
- 2) Komisario-kategoriaren sorbaldakoak urre koloreko bi barra paralelo izango ditu, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.
- 3) Komisariorde-kategoriaren sorbaldakoak urre koloreko barra bat izango du, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.

b) Ikuskapen eskala.

- 1) Ofizial-kategoriaren sorbaldakoak zilar koloreko eta angelu itxurako hiru galoi izango ditu, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.
- 2) Ofizialorde-kategoriaren sorbaldakoak zilar koloreko eta angelu itxurako bi galoi izango ditu, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.

c) Oinarrizko eskala.

- 1) Lehen mailako agente-kategoriaren sorbaldakoak zilar koloreko eta angelu itxurako galoi bat izango du, sorbaldaren luzetarako ardatzarekiko perpendikularrean jarrita.
- 2) Agente-kategoriaren sorbaldakoak ez du galoirik edukiko.

Sorbaldakoek galoiei edo barrei dagokien kolore bereko azpildura eramango du, kategoriaren arabera.

Baldin eta uniformearen jantziak sorbaldakoak edo mahuka erdiak erabiltzeko modurik ematen ez badu, dibisak eramateko euskarria erabiliko da, eta bularrean eseki.

Kidegoko Burutza duen pertsona Ikuskapen Eskalako edo Oinarrizko Eskalakoa balitz, kategoriaren arabera dagozkion galoiak eramango ditu, urre kolorekoak.

Diseinua eta ezaugarriak IV. eranskinean ageri dira.

4.4.– Beste ezaugarri batzuk.

Udaltzaingoen Kidegoa osatzen duten unitateei buruzko zenbait ezaugarriren erabilera ezar dezakete udalek, baina eskuliburu honek ezarritakoen ordezkioak izan gabe.

5.– IBILGAILUAK.

Udaltzaingoen Kidegoko kideek erabiltzen dituzten automobilek eta motozikletek eskuliburu honen V. eranskinean agertzen diren identifikazio ezaugarriak izan behar dituzte.

6.– UDAL JAGOLEEN ETA MUGIKORTASUN AGENTEEN UNIFORMEA ETA KANPOKO BESTE IKUR BATZUK.

6.1.– Aguazilak edo udal jagoleak.

Udal jagoleek VI. eranskineko diseinua eta deskripzioa dituzten jantziak erabiliko dituzte, eta argi eta garbi bereizten dira udaltzaingoaren jantzetatik, zeren eta «udal jagolea» legenda baitaramate bularreko eskuinaldeko albo batean.

Legenda horren ordezkio, beste bat jar dezake udalak, bere irizpidearen arabera.

«Udal-jagole» legenda bizkar erdian agertuko da. Udalaren armarrria eramango dute eskuineko besoan.

6.2.– Mugikortasuneko agenteak.

Hauexek dira mugikortasuneko agenteen oinarrizko uniformeak: mahuka luzeko polo bat eta mahuka laburreko beste bat, laranja eta itsas urdinekoak; galtza urdinak, galtza-uhalak dituen bi koloreko txaleko islatzailea eta zira.

Udalak neguko edo udako modalitatetarako erabakitako jantzi osagarriak erabili ahal izango dituzte.

Bularreko eskuineko aldean, «agente» inskripzioa baino ez da eramango, eta atzean «Trafikoa» legenda. Legenda horren ordez, beste bat jar dezake udalak, bere irizpidearen arabera.

Galtzek ez dute inskripziorik edo intsigniarik eramango. Bi banda islatzaile eramango dira galtzen barrenean.

Halaber, Udalaren armarrria eramango du eskuineko besoaren goiko aldean.

VII. eranskinean bildu dira udalaren mugikortasun agenteen uniformeetarako aurreikusitako diseinu eta ezaugarri espezifikoak.

6.3.– Jantzi osagarriak.

Udalek kapitulu honetan aipaturikoen zenbait jantzi osagarriak erabiltzea erabaki ahal izango dute, baina horiek ez dute ordezkatuko edo nabarmen aldatuko Eskuliburu honetan ezarritako oinarrizko jantzien multzoa.


II. ERANSKINA

UDALTZAINGOAREN OHIKO UNIFORMEKO JANTZIAK: EZAUGARRIEN ETA DISEINUAREN DESKRIPZIOA

A) Txanoa edo txapela:

a.1.– Txanoa: kasketa eta bisera ditu. Txanoaren ingerada, beheko aldea eta goiko aldea osatzen dituzten zortzi panel ditu kasketak.

Atzeko aldean, zirkuluerdi itxurako zuloa dago, atzeko aldean doitu daitekeen itxiera batekin nabarmenduta.




Lehenengo Agente, Ofizialondoko eta Ofizialen kategorietako agenteen txanoek zilar koloreko lokarri bat izango dute biseraren inguruaren kanpoaldean. Agentea Eskala Teknikokoa baldin bada, lokarriak urre kolorea izango du.

Halaber, lokarria urre kolorekoa izango da Kidegoko burutzako ardura duen pertsona Oinarrizko Eskalakoa edo Ikuskapen Eskalakoa baldin bada.

a.2.– Txapela: azal eta larru beltzak ditu, txortena duen euskal txapelari dagokion moduan.

Erdian, kolore zuriaz brodaturiko eguzki-lorea dago.



B) Neguko eta udako poloa.

Urdin ilunekoa da, sorbaldetan izan ezik; hori fluoreszente kolorekoa izango da aurreko aldean eta puntako akabera izango du; atzeko aldean, berriz, arku itxurakoa da. Urdin iluneko koloreko zatia horiz dagoen zatitik bereiziko da, lokarri islatzaile batekin.

Lepoa: alkandora itxurakoa edo kremailera erdikoa izan daiteke. Ehun berdinarekin egingo da alkandora itxurakoa, txandakako bi lauki ilararekin, dama-jokoaren taula gisa, eta itxiera estalki urdinekoa izango da, hiru botoirekin, edo txandaka lepo luzekoa izan daiteke.


Sorbaldakoak: kolore horiari gainjarrita, sorbaldan, bi sorbaldako ipiniko dira botoiarekin, eta bai goiko aldean, bai oinarrian, puntako itxurakoak izango dira.

Botoi-zuloko patrika, boligrafoak eramatekoa, eta hori fluoreszente kolore bizikoa ezkerreko mahukan.


Emisorearen mikrofonoari eusteko tresna bularreko ezkerreko eta eskuineko aldean.

Hauexen artean aukera dezakete udalek:

b.1.1.– Mahuka luzeko poloa, alkandora-itxurako lepoduna.



b.1.2.– Mahuka luzeko poloa, kremailera erdi batekin.




b.2.1.– Mahuka laburreko poloa, alkandora-itxurako lepoduna.



b.2.2.– Mahuka laburreko poloa, kremailera erdi batekin.**C) Erabilera anitzeko galtzak: kolore urdin ilunekoak.**

Galtzek alboko bi patrika izango dituzte. Eskuineko berran, bi koadroko dama-taula itxurakoa eramango dute, zuri kolorekoa.

**D) Jaka:**

Jakak urdin iluna eta motza izan behar du. Soingainean, berriz, hori fluoreszente koloreko zati bi izango ditu: aurreko aldean V itxurakoak, eta bizkarraldean arku baten itxurakoak. Zati horia eta zati urdina kordoi islatzaile batek bereiziko ditu.

Lepoa: lepoaren kanpoko zatia horia da, eta lepoa altxatuta eramaten denean ikusgai izango da. Azpildura urdin bat dauka, eta kremailera itxiaren gainean estalkitxo bat darama, erosoago delako.


Sorbaldakoak: jakak tira bat izan behar du, era horizontalean josita. Tiratik sorbaldako zurrun bat sartuko da, galoiak jartzeko.

Boligrafoak eramateko poltsikoak hori fluoreszente kolorekoa izan behar du, eta ezkerreko mahukan egon; botoi-zuloa eta xingola bat eduki behar ditu.


Igorgailuko mikrofonoa lotzeko euskarriak aurreko aldearen ezker eta eskuineko alboetan, bularraren parean, egon behar du.

Hauexen arteko aukera egin dezakete udalek:


d.1.1.– Kremlera osoko jaka.



d.1.2.– Kremlera erdiko jaka.



E) Zira.



F) Gerrickoa. Beltza, olanazkoa.

G) Galtzerdiak: beltzak, zuntz edo kotoizkoak.

H) Zapatak edo botak.

1) Zapatak: beltzak.

2) Bota: beltza, ertaina edo luzea, aukeran udalentsat.

I) Eskularruak: larruzkoak, beltzak. Halako moldez egingo dira, non ezaugarri hauek izango dituzten: ebaketen kontrakoa, transpiratzekoa, hidrouxagarria eta babes termikoa.

J) Txaleko islatzailea.


Ikusgai izateko agintzen duten araudiak bete beharko ditu.



2012ko urriaren 3a, asteazkena

3.- Bularreko ezker aldean serigrafiatu, itsatsi edo brodatzeko plaka, udaltzaingoaren piezetan «Udaltzaingoa» legenda duen eguzki-lore bat.

Bularreko ezker aldean, «Udaltzaingoa» legenda duen eguzki-lorea. Urrezkoa eta zilarrezkoa, erdian udal armariarekin, hala nahi badu udalak. Eguzki-lorearen beheko aldean, atzealde urdinarekin eta legenda zuriarekin «UDALTZAINGOA», ahurreko posizioan.



Udalaren armaria
sartzeko zirkulua
12X12mm

Ezarritako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte udalerriek (7,1 cm zabal eta 7,1 cm garai).

4.- «Udaltzaingoa» legenda duen eguzki-lorearen diseinua, txano eta txapeletarako.




Ezarritako gehieneko neurriak errespetatu beharko dituzte udalerriek (5 cm zabal 5,1cm garai).

Txapeletan, «Udaltzaingoa» legenda duen eguzki-lorea erdian jarriko da, urre kolorean brodatuta.

5.- Lanbide-identifikazioko edo erreferentziako zenbakia.

Gorputzeko goiko aldeko uniformean ikusten diren piezek udaltzainaren lanbide-zenbakia edo erreferentziakoa eraman behar dute bularraren ezker aldean eguzki-lorearen azpian.



Hauetako zenbakia sartuko den moduluaren neurriak: 1,7 cm zabal eta 3,5 cm luze.

Tipografia: Arial Black.

IV. ERANSKINA

ENTSEINAK

Udaltzaingoen kidegoetako pertsonalaren entseinak sorbaldako urdinak eta zilar edo urre koloreko galoiak izango dira, sorbaldaren zabaleraren luzera berdinekoak eta 55 milimetro zabalekoak; «Udaltzaingoa» legenda duen eguzki-lorea sartu behar da bertan.

1.– Oinarrizko eskala

1.1.– Agentea



1.2.– Lehen agentea



2.– Ikuskapen eskala

2.1.– Ofizialordea



2.2.– Ofiziala



3.– Eskala teknikoa

3.1.– Komisariordea



3.2.– Komisarioa



3.3.– Intendentea



Polizia-etxeke burua lehen mailako agentea, ofizialordea edo ofiziala baldin bada, galoiek eta azpildurek urre kolorekoak izan behar dute.

V. ERANSKINA**POLIZIA IBILGAILUAK****1.- AUTOMOBILAK.**

Kolore zuri islatzailearekin margotuko dira, eta alboko banda urdinak sartuko dira (*Pantone 282*). Hartara, ibilgailu motaren arabera erabakiko dira neurriak, betiere hobeto ikusteko, nabarmentzeko eta bere gainerako elementuekin bateratzeko irizpideak erabiliz.

Aurreko kapotean, aurrealdeko banda urdina sartuko da (*Pantone 282*), «Udaltzaingoa» legendak eta eguzki-loreak osatutako irudi korporatiboarekin batera; diseinua ibilgailuaren aurreko konfigurazioari egokituko zaio.

Luzetara, albo bietan eta beheko aldearen parean, banda islatzailea eramango du, hori bizi-bizikoa, geruza bakarrekoa eta gehienez 7 zentimetro zabalekoa, betiere ibilgailu bakoitzaren diseinuari egokituta.


Aurreko ateetako erdian, dagokion udalerrriaren izen ofiziala agertuko da, eta aukeran, udalerrriaren armarrria egongo da horren erdian. Alboko atzeko ateetan, «Polizia» hitza agertuko da.

Ibilgailuaren atzeko aldean, udalerrriaren armarrria jarriko da ezkerrean eta eskuinaldean, berriz, ikurrina korporatiboa.

Ibilgailuen goialdeko kanpoaldean, larrialdietarako mekanismoen gunearen ostean, udalerrriak nahi duen moduko errotulazioa jarri ahal izango du.

A) Autoa.

2012ko urriaren 3a, asteazkena

B) Lur orotakoa.**C) Furgoneta.****D) Garabia.**

2.- MOTOZIKLETAK ETA ANTZEKOAK.

Depositua, karenajea eta, hala denean, karrozeriaren beste elementu batzuk kolore zuri islatzailekoak izango dira.

Luzetara, alde banatan karenajearen eta maleten gainean, eta aurrez aurre lohi-babesetan gurpiletako hagunetan ikusten den zatiaren parean, banda urdina eramango dute (*Pantone 282*).

Karenajearen alboko banda urdinaren gainean, udalerraren armarrria egongo da.

Alboko banda urdinaren azpian eta karenajearen erditik eta horren azalerako aurreko alderaino, motorreko 2 defentsen edo antzeko piezen akaberak izan ezik, kolore hori islatzailearekin joango dira.

Ibilgailu motaren arabera erabakiko dira zona urdinen eta banda horien neurriak, betiere hobeto ikustera, nabarmentzera eta gainerako elementuekin bateratzera bideratuta.

Karrozeriako ertzean, alde banatan, «Polizia» legenda agertuko da.

Karenajearen kupulan (aurrealdea), haizetako gardenaren gainean, «Udaltzaingoa» hitza agertuko da, azalera urdineko eguzki-lorea duela (*Pantone 282*).

A) Motozikleta.



B) Scooter-a.






VI. ERANSKINA

UDAL JAGOLEENTZAKO UNIFORMEA:
DESKRIPZIOA, EZAUGARRIAK ETA DISEINUA

A) Txanoa edo txapela.


Aukeran udalentsat.

a.1.– Txanoa.



Aurrealdean udalerraren armarrria jarriko da.

a.2.– Txapela.



Goiko aldean udalerraren armarrria jarriko da.

B) Neguko eta udako poloa.

b.1.– Mahuka luzeko poloa. Poloak urdin ilun kolorekoa izan behar du. Soingainean, berriz, hori fluoreszente koloreko zati bi izango ditu: aurreko aldean V itxurakoak, eta bizkarraldean arku baten itxurakoak. Zati urdina eta zati horia kordoi islatzaile batek bereiziko ditu.

Lepoa: lepoak alkandora-itxurakoa eta poloaren oihal berekoa izan behar du. Lauki-lerro bi izan behar ditu, dama-joko taularen lauki-motakoak eta txandakatuak. Polo batzuen lepoa hiru botoiko estalkitxo urdin batek ixten du, eta beste batzuk lepo luzekoak dira.

Sorbaldakoak: soingainean, zati horiaren gainean eta botoi batez lotuta, bi sorbaldako izan behar ditu. Goiko aldeak eta beheko aldeak V itxurakoak izan behar dute.

Boligrafoak eramateko poltsikoak hori fluoreszente kolorekoa izan behar du, eta ezkerreko mahukan egon; botoi-zuloa eta xingola bat eduki behar ditu.

Igorgailuko mikrofonoa lotzeko euskarriak aurreko aldearen ezker eta eskuineko alboetan, bularraren parean, egon behar du.

2012ko urriaren 3a, asteazkena

Hauexen arteko aukera egin dezakete udalek:


b.1.1.– Mahuka luzeko poloa, alkandora-itxurako lepoduna.




b.1.2.– Mahuka luzeko poloa, kreamilera txiki batekin.




b.2.1.– Mahuka motzeko poloa, alkandora-itxurako lepoduna.







b.2.2.– Mahuka motzeko poloa, kreamilera txiki batekin.**C) Galtzak.**


Urdinak eta klasikokoak; gain jarritako ehunaren atzeko eta alboko patrikak, kreamileradunak.

**D) Jaka.**

Hauexen arteko aukera egin dezakete udalek:

d.1.– Jaka.**d.1.1.– Kreamilera osoko jaka.**

d.1.2.– Kremlera erdiko jaka.**E) Zira.****F) Txaleko islatzailea.**

G) Udalaren besoko armarrria udal jagoleentzat.

Udalaren izena, «udal jagolea» izendapena eta udalerriaren armarrria agertu behar dira.

Udalerriek aukeratu ditzakete armarrrien diseinua eta itxura, eta soilik ezarritako neurriak errespetatu beharko dira.

H) Lanbide-identifikazioko edo erreferentziako zenbakia.

Gorputzaren goiko aldeko uniformeetan ikusten diren piezek udal jagolearen lanbide-zenbakia edo erreferentziakoa eraman behar dute bularreko ezkerreko goi aldean.



Hauetako zenbakia sartuko den moduluaren neurriak: 1,7 cm zabal eta 3,5 cm luze.




Tipografia: Arial Black.

VII. ERANSKINA

MUGIKORTASUNeko AGENTEENTZAKO UNIFORMEA:
DESKRIPZIOAK EZAUGARRIAK ETA DISEINUA

A) Txanoa.

Aukeran udalentsat.



Aurreko aldean, udalerraren armarrria jarriko da.

Txanoaren goiko aldean udalerraren armarrria jarriko da.

B) Neguko eta udako poloa.

Bi kolorekoak izango dira guztiak, laranja eta itsas urdinekoak.



Jantzi hauen arteko aukera egin dezakete udalek:

b.1.1.– Alkandora-lepoko mahuka luzeko poloa.




b.1.2.– Mahuka luzeko poloa, kreamilera erdi batekin.





b.2.1.– Mahuka laburreko poloa, alkandora-itxurako lepoduna.**b.2.2.– Mahuka laburreko poloa, kreamilera erdi batekin.****C) Galtzak.**


Ez dute intsigniarik izango, eta bi xingola islatzaile eramango dituzte barrenean.



D) Jaka.

Hauexen arteko aukera egin dezakete udalek:

d.1.– Kreamilera osoko jaka.**d.2.– Kreamilera erdiko jaka.****E) Zira.**

F) Jaka.**G) Udalaren mugikortasun agenteen besoko armarrria.**

Udalerriaren izena, «udalaren mugikortasun agentea» eta udalerriaren armarrria agertu behar dira.

Udalerriek aukeratu ditzakete armarrrien diseinua eta itxura, eta soilik ezarritako gehieneko neurriak errespetatu behar dira.

H) Lanbide-identifikazio edo erreferentziako zenbakia.

Gorputzaren goiko aldeko uniformeetan ikusten diren piezek udal jagolearen lanbide zenbakia edo erreferentziakoa eraman behar dute bularreko ezkerreko goi aldean.



Hauk dira zenbakia sartuko den moduluaren neurriak: 1,7 cm zabal eta 3,5 cm luze.

Tipografia: Arial Black.